



Garbiñe Aranburu: “Kapitalaren boterea fronte guztietan borrokatuko dugu: enpresetan, kalean eta instituzioetan”

LABeko Idazkari Nagusiaren hitzartzea

Aurtengo Maiatzaren Lehena ezhoiko modu batean ospatzen ari gara moduei dagokienean, baina ez mamiari dagokionez, gaurkoa ere langile harrotasuna aldarrikatzeko eguna izango delako.

Lehenik eta behin gogoetarako segundo batzuk hartzea eskatzen dizuet. Gutako bakoitzak zer nolako bizipenak, zer nolako sentipenak izan dituen konfinamendu egoera honetan aztertzeko eskatzen dizuet, jarri pentsatzen gu nola sentitzen garen eta zer izango den 30 urte baino gehiago espetxean egotea. 4 pertsonak hilabete honetan bertan egin dituzte 30 urte baino gehiago espetxean, eta 53 dira 20 urte baino gehiago espetxean daramatzaten presoak. Salatzekoa da bizitzen ari diren egoera, familiengandik urrun eta bisitarik gabe. Guk, maite ditugulako, etxean eta bizirik nahi ditugu, eta horren alde egiten jarraituko dugu.

Bestetik ere, gaurkoan gogoan izan nahi ditugu beren erasotzaileekin konfinamendua etxean pasatu behar duten emakume horiek.

Eta gaurkoan, egoeraz, testuinguruaz, bi gogoeta egin nahi ditugu.

Lehenenik, gogoratzea krisi honen hasieratik esan duguna, bizitzen ari garena osasun krisia baino askoz gehiago da, sistema bera da krisian dagoena, sistema da gaixo dagoena; zaintza krisia, krisi ekologikoa, krisi soziala, horiek guztiak pilatzen dira sistemaren krisiaren baitan.

Indarrean dagoen eredu kapitalista, heteropatriarkal eta ekozida honek ezinezkoa bilakatzen du bizitza duina. Gogoratu behar dugu urte hasiera hau oso latza izaten ari dela langileontzat. Oso latza, dagoeneko 29 direlako beraien bizia lanean utzi behar izan duten langileak eta bi gehiago desagertuak daudenak. Guztiz onartezina da egoera.

Bestetik ere, ikusten ari da krisi honetan zehar zer den benetan ezinbestekoa, zeintzuk diren ezinbesteko lan horiek bizitza sostengatzeko. Kasu gehienetan emakumeon betetzen ditugun lanak, inolako aitortza politikorik, ekonomikorik edo sozialik gabe. Baina bai, guk aitortzen ditugu lan horiek, eskertzen eta txalotzen ditugu langile horiek. Eta esaten dugu ere, txaloetatik harago joan nahi dugula, txaloetatik harago, beraien bizi baldintzak borrokatzen jarraituko dugula.

Bigarrenik, testuinguruaz egiten dugun irakurketa honetan, arreta jarri nahi dugu pandemia egoera hau nola baliatzen ari den berriro ere kapital-bizitza talka horretan sakontzeko. **Konfinamendu eredu hau kapitalaren, enpresa handien interesen arabera diseinatua izan da**, hartzen ari diren erabaketan pertsona eta osasuna ez daude erdigunean. Eta horrek, gu guztiok, herritarrok, konfinamendu gogor bat pairatzera eramán gaitu.

Era berean ere, **egoera hau baliatzen ari da Estatuaren aldetik zentralizazioaren aldeko apustua egiteko**, militarizazioan sakontzeko, kontrol soziala areagotzeko. Gure askatasun indibidualak urratuak izan dira, baita eskubide zibil, sozial eta politikoak ere.

Horren adibide, gaurkoan **kalera ateratzea erabaki dugu** mobilizazio ibiltariak planteatu ditugu eta salatu behar dugu Nafarroan izan dugun debekua. Sistemak balkoietan nahi gaitu, otzan nahi gaitu, isilik nahi gaitu, eta guk esaten dugu gaur ez bada bihar, kalera aterako garela. Kalera aterako gara, hori bai, beti ere segurtasun neurri guztiak beteta.

Krisi honen ondorio ekonomiko eta sozialak bortitzak izaten ari dira eta izaten jarraituko dute. **Kapitala hurrengo faserako prestatzen ari dira, baina gu ere bai, langileok ere bai. Indar harremanak markatuko du datorren agertokia. Eta gu prest gaude eszenatoki hori borrokatzeko. KAPITALAREN BOTEREA FRONTE GUZTIETAN BORROKATUKO DUGU: ENPRESETAN borrokatuko dugu, KALEAN borrokatuko dugu eta INSTITUZIOETAN borrokatuko dugu.**

Orain da garaia, krisi honetan zehar **dogma neoliberaletariko asko erori egin baitira**. Krisi honetan zehar agerian geratu da eredu hau jasanezina dela, eta horrek aukera berria ematen digu.

Noski, beste normaltasun bat nahi dugu, jakina, **EZARRITAKO ARAUA HAUSTEN DUEN NORMALTASUN BERRIA NAHI DUGU**, ez dugu normaltasun kapitalistara itzuli nahi, ez dugu bizitza duina eragozten duen eta planeta suntsitzen duen normaltasun bat nahi.

Horregatik diogu premiazkoa dela beste eredu ekonomiko eta sozial baterantz joatea. **Premiazkoa da TRANTSIZIO EKOFEMINISTA bati ekitea**, bizitzaren jasangarritasuna erdigunean jartzeko.

Iritsi da unea PILAKETA ETA ABERASTASUN KAPITALISTAREN ZIKLOARI AMAIERA emateko. Eta horrek aberastasunaren banaketari buruz hitz egitera garamatza. Garaia da beste zerga-politika bati buruz hitz egiten hasteko. Gehiago biltzen duen eta modu progresiboagoan egiten duen politika fiskala. Horretarako, egungo zerga-politikaren norabidea aldatu behar da. Eta, gainera, premiazkoa da, **beharrezkoa da zerga berri bat ezartzea, kapital-errentak gehiago ordain dezan.**

Argi dugu eta esaten dugu garai zailak bizi ditugula langileok. Eta garai zailak etorriko zaizkigula. Jakitun gara horretaz. Ordea, era berean, **AUKERAZ BETERIKO MOMENTUA dela uste dugu**. Eta aldi berean, langileon indarretan sinesteko unea dela uste dugu. Langileon indarrarekin mundua eraldatu dezakegulako.

Gaurdanik ekin behar diogu eredu berri baterako bideari, trantsizio ekofeministari. Orain da momentua bide horri ekiteko. Orain da momentua, geroz eta jende gehiagok ikusten duelako, gehiengo zabal batek ikusten duelako, lan eta bizi duina bermatu behar zaiola herritar orori. Gehiengo zabal batek ikusten du sektore publiko indartsu bat behar dugula, osasun sistema publiko indartsua izango duena. Orain da momentua, gehiengo zabal batek argi duelako zaintza eredu hau aldatu behar dela, zaintza lanak aitortu eta berrantolatu behar direla.

Orain da momentua ere, geroz eta gehiago garelarako krisi klimatikoari aurre egiteko gaur egun indarrean dagoen produkzio eta kontsumo eredu hau zalantzan, auzitan jarri

behar dela pentsatzen dugunok. Ekonomia lokalaren aldeko apustua eginez, energia burujabetzaren edota elikadura burujabetzaren alde eginez.

Eta bide hori, **hemen, Euskal Herrian egin behar dugu**. Hemen egin behar dugu bitzta erdigunean jartzeko eredu berri baten aldeko borroka, **HERRI BURUJABETZAREN BIDETIK** eta beti ere, euskal errepublika sozialista eta feminista ortzimugan. Krisi honek utzi duen beste irakasgaietako bat oso argia delako, Estatuak beharrezkoak dira, orain berriro ere inoiz baino nabariago geratu da hori.

Eraldaketa sozialaren aldeko bide horretan **LABetik indarrak metatzearen aldeko apustua** egin dugu. Bide hori ez dugu bakarrik egin nahi. Euskal Herrian gehiengo sindikal eta soziala gara bide horretan sinesten dugunak.

Guk beti egin dugu **KONFLUENTZIAREN ALDE**, eta hori da gaur Ipar Euskal Herrian ere erakusten ari garena. Hori da bidea, eta horretan sinesten dugu. Gogoratu behar dugu Euskal Herrian mobilizazio sozialeko urte garrantzitsuak izan ditugula, mobilizazio sindikaleko urte garrantzitsuak izan direla, eta urtarrilean Greba Orokor batean amaitu genuela. Urtarrilean ofentsibara planteatu genuen Greba Orokorra, bitzta duinaren alde. Eta krisi honetan zehar ere Euskal Herriak erakutsi du zaintza sare herritarrak antolatzeke gaitasuna duela, krisi honetan zehar ere, konfluentzia horretan, Eskubide Sozialen Kartan erakutsi dugu gaitasuna dugula proposamen eraldatzaileak egiteko, eta hori da gure ustetan jarraitu beharreko bidea, karril horretatik, bide ofentsibo horretatik ez gaituzte aterako.

Langileon indarretan sinesteko momentua da, langileok eraldatu dezakegulako mundua. Jarraitu dezagun proposamenak egiten, eta proposamen horiek borrokatzen kalean, lantokietan eta instituzioetan.

Gora Maiatzaren Lehena!

Gora langile borroka!

Euskal Herrian, 2020ko Maiatzaren Lehenean